

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera, bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak dira baliabideak. Ondoko kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.



Baliabide horiek ahalbidetuko dute gure balio-proposamena garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak lortzea. Behin funtsezko baliabideak identifikatu ondoren, beharrezkoa da baliabide horiek ondo kudeatzea, baliabideotatik abiatuta gure enpresak etekinak izan ditzan.

Gure enpresak funtsezko baliabideak hainbat helburu lortzeko erabiliko ditu. Lehenik, bezeroengana iristeko erabiliko ditugu, batez ere hasieran gure helburu nagusietako bat izango baita. Bigarrenik, diru sarrerak lortzeko ere erabiliko dugu metodo hau gure enpresaren oinarriak finkatzeko baliagarria izango baitaigu.

Baliabide fisikoei begira gure enpresan garrantzitsuak izango diren elementuak aurki ditzakegu. Gure enpresak bulego nagusi bat edukiko du, bertan enpresaren erabaki eta zati guztiak koordinatuko dira. Ibilgailuak oso garrantzitsuak izango dira salmenta puntuetara gure produktua fabrikazio puntuetatik iritsiarazteko. Horretarako makinaria ona eta banaketa sare garatua eduki beharko dugu.

Bestalde, baliabide intelektualei erreparatuz, behar beharrezkoak ditugu gure produktua babesteko patenteak eta egile-eskubideak, gure produktua guk bakarrik saltzeko, hau da, guk bakarrik saldu eta zabalduko dugun produktua izateko. Horrez gain, gure erosleen datuak babesteko, beharrezkoa izango dugu bezeroen datu-basea, beraien informazioa modu seguruan jaso ahal izateko.

Finantza baliabideak ere oso garrantzitsuak dira gure enpresak aurrera egin dezan. Hasieran gure aurrezkiekin eta mailegu parte hartzailearekin lortutako dirua gure enpresa zabaltzeko eta oterkiak egiteko behar dugun materiala erosteko erabiliko dugu. Enpresa handitzen doan heinean, materiala erosteaz gain, langileen soldatak ordaintzeko ere erabili beharko dugu enpresarekin irabazten dugun dirua.

Giza baliabideei dagokienez, hiru baliabideetatik bi menderatzen ditugula uste dut.

Lehenik eta behin, sorkuntza dago. Egin genuen test-aren arabera, taldeko laurok sorkuntza nahikoa garatua dugu.

Bestetik, gaitasun komertziala dago. Berriro ere test berari erreparatuz, ikus dezakegu jendearen aurrean gauzak aurkezteko abilezia dugula, eta horrek gaitasun komertzial handia ematen digu.

Azkenik ezagutza dago, ahulezia gehien dugun puntua. Inoiz ez dugu proiektu honen antzeko gauzarik aurrera eramateko aukerarik izan. Hortaz, esperientzia falta dugu, eta ondorioz, ezagutza falta.